

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

228. zenbakia

Data 2010-11-29

2 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

1011/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 24koa, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.011/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 24koa, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duena.

Irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak araututa utzi du bitarteko elektronikoen erabilera Foru Administrazioaren eremuan, betiere ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, ezarritakoaren barruan.

Bitarteko elektronikoen erabileran bete beharreko printzipioen barruan –foru dekretuaren 3. artikulua– esaten da herritarrek borondatezkoa izango dutela bitarteko horiek erabiltzea. Alabaina, printzipio horrek badu salbuespen bat, eta da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek, dagokion foru diputatuaren foru agindu bidez, Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz bakarrik izateko obligazioa ezarri dezaketela, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanbideagatik edo behar bezala frogatutako beste arrazoi batzuegatik, beharrezko bitarteko teknologikoak eskura dituzten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak direnean.

Salbuespen horren garapen gisa, aipatutako foru dekretuaren 33. artikulua harremanak bitarteko elektronikoz izateko obligazioa arautzen du, eta bertan dio Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa ezartzen duen foru aginduak gutxienez honako puntuak finkatu beharko dituela:

- a) Zein komunikaziori aplikatzen zaien obligazioa, berariaz adierazita Administrazioaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea edo erregistro elektronikoa erabiltzea obligazio horren barruan sartzen diren edo ez.
- b) Zein bide elektronikoa erabili behar den.
- c) Sinadura elektronikoko zein sistema erabil daitezkeen.
- d) Zein pertsona, talde edo entitate dauden behartuta.

Horrez gain, dio foru agindua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta egoitza elektronikoa argitaratu beharko dela.

Azken urteotan Ogasun eta Finantza Departamentua bitarteko telematikoen erabilera bultzatzen ari da zerga arloko zenbait obligazio betetzeko garaian, aitorpenak aurkezteko edo eskaera jakin batzuk tramitzeko, kasu. Gai horren inguruan onartu diren azken foru aginduak ditugu horren adibide, esate baterako, azaroaren 18ko 1002/2008 Foru Agindua, zergapeko jakin batzuk zerga aitorpenak eta autolikidazioak sinadura elektronikoa balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duena (laugarren xedapen gehigarrian jasotakoa izan ezik), edo abenduaren 3ko 971/2009 Foru Agindua, zerga aitorpenak, autolikidazioak eta eskaera jakin batzuk sinadura elektronikoa balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura arautzen duena.

Helburu horrekin jarraitu nahirik, foru agindu honek arautzen du nola bete behar duten zergapekoek edo borondatezko ordezkariak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza elektronikoan herritarren esku jartzen diren tramite eta zerbitzu guztietan, bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa, behar besteko gaitasun ekonomiko edo tekniko izateagatik, edo beren lanbideagatik, bitarteko horiek erabili ditzaketenean.

Hortaz, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzen duenak, 33. artikuluan ezarritakoa garatze aldera, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egitera behartuak.

1. Jarraian aipatzen diren zergapekoek bitarteko elektronikoak erabiliz egin beharko dituzte, nahitaez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.net> egoitza elektronikoan aipatzen diren zerga arloko tramite eta komunikazioak.

a) Plantillan gutxienez pertsona bat duten entitateek, nortasun juridikoa izan edo ez, lan etekinak ordaintzen badizkiote, baita pertsona hori lanaldi osorako kontratatua izan ez denean ere.

Obligazio horretatik kanpo geratzen dira administrazio kontseiluetako kideei eta administratzaileei, lan etekinen kontzeptupean, ordainsariak bakarrik ordaintzen dizkieten entitateak.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako pertsona fisikoek, baldin eta jarduera ekonomikoak egiten badituzte eta, lan etekinak ordaintzeagatik, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztutako aurreko lehen ekitaldiko 190 ereduan 5 jasotzaile edo gehiago adierazi badituzte, baita pertsona horietakoren bat lanaldi osorako kontratatua izan ez denean ere.

Foru agindu honek ez die eragingo 190 ereduan 4 langile edo gutxiago zerrendatu dituzten pertsona fisikoei –banakako enpresariei eta profesionalei–.

c) Foru Administrazioarekin egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzen duen irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuko lehen xedapen gehigarrian eta irailaren 15eko 821/2006 Foru Aginduko 9. artikuluan jasotakoaren arabera profesionaltzat hartzen diren pertsonak edo entitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan haien ordezkatu guztientzat ageri diren tramite eta komunikazioei dagokienez, nahiz eta ordezkatuak aurreko a) eta b) letren barruan sartuta ez egon.

2. Zehazki, bitarteko elektronikoz aurkeztu beharko dituzte autolikidazioak eta bestelako zerga aitortpenak, zorrak geroratzeko eskaerak, zerga ziurtagirien eskaerak, eta aipatutako egoitza elektronikoan baliabide elektronikoaren bidez aurkeztu daitekeen beste edozein eskaera edo komunikazio.

3. Aurreko 1. apartatuan ezarritako obligazioak ez dakar berekin jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzea edo nahitaez erregistro elektronikoa erabiltzea, non eta foru agindu bidez ez den bestelakorik ezartzen.

4. Aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako zergapekoen identitatea frogatzeko, sinadura elektroniko balioztatua edo 40/2006 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera jasotako pasahitz operatiboa erabili beharko da.

Aurreko c) letretan aipatutako pertsonak edo entitateak sinadura elektroniko balioztatua erabiliz frogatu beharko dute beren identitatea.

Ondorio horietarako, ziurtagiri elektroniko balioztatuak onartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aipatzen diren ziurtapen-zerbitzuen emaileek eman dituztenean.

2. artikulua. Autolikidazioak eta bestelako zerga aitortenak, nahiz izaera horretako eskaerak eta bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz aurkezteko baldintza orokorrak.

1. Bai autolikidazioen eta bestelako zerga aitortenen ereduak, bai zerga arloko eskaerak (hala nola, zor gerorapenak edo ziurtagiriak), bai egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.net>) jasotako tramite eta zerbitzuen zerrendan aipatzen diren bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz aurkezteko, obligazio horiek ezartzen dituen edo horrelako eskaerak edo tramiteak egitea aurreikusten duen araudiari jarraituko zaio. Bereziki, autolikidazioak eta bestelako zerga aitortenak aurkezteko epea obligazio horiek ezartzen dituen araudian ezarritakoa izango da.

2. Aipatutako bitarteko elektronikoen erabilerari dagokionez, aplikagarriak izango dira Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua eta foru agindu honetan ezarritakoa.

3. artikulua. Autolikidazioak eta bestelako zerga aitortenak, nahiz izaera horretako eskaerak eta bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz aurkezteko prozedura.

1. Autolikidazioak eta bestelako zerga aitortenak, nahiz izaera horretako eskaerak eta bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz aurkezteko, honela egin beharko du zergapekoak:

— «Gipuzkoataria» zerbitzu telematikoen atarian sartu, egoitza elektronikotik abiatuta (<https://www.gfaegoitza.net>)

Bere burua identifikatzeko sinadura elektronikoa balioztatua erabiltzen badu, eta, orobat, aplikazioak «sinatu» aukera erakusten badu, txartel kriptografikoa sartu beharko du irakurgailuan, eta PIN zenbakia idatzi, erabiltzailea autentifikatzeko.

Pasahitz operatiboa erabilia identifikatzekotan, identifikazio zenbakia eta autentifikazio gakoa sartu beharko dira.

— Dagokion aukera hautatu eta bertan adierazten denari jarraitu.

2. «Gipuzkoataria» zerbitzu telematikoen atarian tramiteen eta zerbitzuen zerrenda agertuko da eguneratuta, eta bertan ikusgai izango dira bitarteko elektronikoz aurkeztu daitezkeen autolikidazioak eta bestelako aitortenak eta eskaerak.

Prozedura horri jarraituz egiten den aurkezpenak, aurrez aurreko aurkezpenarako araudian ezarrita dauden ondorio eta epe berberak izango ditu.

3. Bai zerga arloko autolikidazio eta aitortenak, eta bai izaera horretako eskaerak eta bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz aurkezteko moduak <https://www.gfaegoitza.net> egoitza elektronikoa jasotako tramite eta zerbitzuen zerrendan aurreikusitakoak izango dira, eta bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren «Gipuzkoataria» leihoan ageri direnak.

Hona hemen modu horietako batzuk:

— «PDF» betegarri bat aurkeztuz.

— Formulario bat bete eta aurkeztuz.

— Fitxategi bidez, fitxategiak bidalita. Kasu honetan, bidaltzen diren fitxategiak bidali nahi den aitorten ereduaren foru aginduan ezarritako diseinu fisikoak bete beharko ditu.

4. Aitorten edo tramiteen transmisio elektronikoa akats formalak antzematen badira, sistemak berak horren berri emango dio aitortzaileari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Autolikidazioak eta bestelako zerga aitortpenak bitarteko elektronikoz aurkeztera behartuta ez egonik ere, bitarteko horiek erabiltzen dituzten zergapekoek, baliabide horiek erabilia aurkeztu beharko dituzte haietatik ondorioztatutako zorra geroratzeko eskaerak.

Bigarrena.

Salbuespen gisa, Ogasuneko zuzendari nagusiak baimena eman ahal izango die foru agindu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutako zergapekoetako batzuei, apartatu horretan jasotakoa ez bezalako aurkezpen bideak erabil ditzaten, eta horretarako, behar diren jarraibideak emango ditu.

Hirugarrena.

Foru araudian honako erreferentziak egiten direnean:

— Abenduaren 18ko 1303/07 Foru Agindua, lan etekinengatik, jarduera ekonomikoen etekinengatik eta sariengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aitortzeko 190 eredua onartzen duena, 2. artikuluaaren bigarren paragrafoari dagokionez.

— Azaroaren 18ko 1002/2008 Foru Agindua, zergapeko jakin batzuk zerga aitortpenak eta autolikidazioak sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duena, edo

— Abenduaren 3ko 971/2009 Foru Agindua, zerga aitortpenak, autolikidazioak eta eskaera jakin batzuk sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura arautzen duena, foru agindu honi buruzkoak direla ulertuko da.

Laugarrena.

Ogasuneko zuzendari nagusiak urriaren 28ko 1119/2004 Foru Aginduaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ematen dituen ebazpenek indarra gordeko dute foru agindu honetan jasotako ondorioetarako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen da abenduaren 3ko 971/2009 Foru Agindua, zerga aitortpenak, autolikidazioak eta eskaera jakin batzuk sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura arautzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Foru agindu hau 2011. urteko urtarrilaren lehen jarriko da indarrean.

Donostia, 2010eko azaroaren 24a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(8910) (13661)